



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2016ko irailaren 16an, 13:15an, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. XEHETASUN AZTERLANA. 3 POLIGONOKO 22 PARTZELA (AURTITZ).

Aurtizko Auzoan dagoen 3 poligonoko 22 partzelako lerrokadurak eta sestrak aldatzeko xehetasun azterlana aurkeztu zuen T.E.L. jaunak. Espedientean ez da hirigintza-aprobetxamendua handitzen. Hasierako onespina eman zion Iturengo alkateak, 2016ko ekainaren 17ko Ebazpenean, espedientea jendaurrean egon da (2016-07-05eko NAO) eta ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 74 eta 76. artikuluei jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Behin-betiko onestea 3 poligonoko 22 partzelako lerrokadurak eta sestrak aldatzeko xehetasun azterlana, hirigintza-aprobetxamendua handitu gabe.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau.

3. Onetsi den agiriaren kopia bat bidaltzea Nafarroako Gobernuari.

3. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 513 PARTZELA.

Aztertu da Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamendu xehakatuko determinazioetako aldaketa, eraikigarritasuna handitzeko Iturengo 2 poligonoko 513 lurzatian. Carpintería Echeverría SL enpresa da espedientearen sustatzailea. Hasierako onespina eman zion osoko bilkurak, 2016ko uztailaren 4an, espedientea jendaurrean egon da (2016-08-16ko NAO) eta ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 92.5, 98.2, 80, 79 eta 74. artikuluekin bat etorritik, aho batez, erabaki da:

1. Behin-betiko onestea Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamendu xehakatuko determinazioetako aldaketa.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau.

3. Onetsi den agiriaren kopia bat bidaltzea Nafarroako Gobernuari.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

4. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. A.M.A.A.k lizentzia eskatu zuen, *Mitxeltenea* etxeko fatxadak pintatzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea A. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 3.088,27 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 92,65 euro.

2. A.M.J.k lizentzia eskatu zuen, *Iturriondua etxearen* atzealdean dagoen oilategia berregiteko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea M. andreari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo fakturak aurkeztu beharko ditu Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

3. F.L.V.k lizentzia eskatu zuen, *Etxeberriko bordako* terrazako zola_konpontzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea L. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 953 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 28,59 euro.

4. J.M.G.E.k lizentzia eskatu zuen, *Mikelenea etxeko* terrazako zola_konpontzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea G. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 5.091,60 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 152,75 euro.

5. K.E.S.S.k lizentzia eskatu zuen 12 metro karratuko txakurtegia eraikitzeko 3 poligonoko 286 partzelan (lurzoru urbanizaezina). Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 117. artikulua arautzen duenarekin bat etorriz, aho batez erabaki da aldeko txostena ematea obrari, eta baimena eskatzea Nafarroako Gobernuari.

6. O.E.M.k lizentzia eskatu zuen, familiabakarrako etxebizitza eraikitzeko Aurtitz Auzoko 3 poligonoko 22 partzelan, egun nabea dagoen tokian. J.O.L. arkitektoak egindako proiektua aurkeztu zuen eskaerarekin bat, 2016ko otsailaren 17an bisatua. Proiektuak 2 eranskin dauzka, 2016ko martxoaren 1ean eta apirilaren 29an bisatuak. Aldekoa izan da Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Zerbitzuak ematen duen bizigarritasun aurretiko txostena eta lerrokadurak eta sestrak aldatzeko xehetasun azterlana behin-betiko onetsi da.

Aipatutakoak kontutan hartuz, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea E. andreari, familiabakarrako etxebizitza eraikitzeko Aurtitz Auzoko 3 poligonoko 22 partzelan, J.O.L. arkitektoak egindako egitasmoaren arabera. Baldintza hauek bete beharko ditu sustatzaileak:

- María Urmeneta eta Patxi Chocarrok emandako txostenean aipatzen diren baldintzak kunplitu.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua, 63.542,68 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 1.906,28 euro.

7. Carpintería Echeverría SL enpresak lizentzia eskatu zuen, Iturengo 2 poligonoko 513 lurzatiko zurgindegia handitzeko, PVCko tailerra jartzeko bertan. Behin-betiko onetsi da Arau



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Subsidiarioen antolamendu xehakatuko determinazioetako aldaketa, eraikigarritasuna handitzeko.

Aipatutako aurrekinak ikusirik eta María Urmeneta eta Francisco Javier Chocarro arkitektoen txosten teknikoa kontuan hartuz, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea Carpintería Echeverría SL enpresari, baldintza hauekin:

- 35/2002 Foru Legeak, abenduaren 20koa, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa, 98.2 artikuluan aipatzen ditu hiri-lurzoruaren jabeek dauzkaten betebeharrak, eta hauen artean dago “a) *Antolamendu-tresna aldatu eta aldaketa horretatik esparruaren aprobetxamendua handitzen bada, aprobetxamendu-handitze horren %10ari dagokion lurzoru administrazio jarduleari eskuratu beharra, nahitaez eta doan. Betebehar hori bete ahalko da lurzoruaren balioari dagokion eskudirua emanaz, jarduketan bertan aurreikusita egon daitekeen finantzaketa publikoaren parte bat ordaindu ahal izateko, edo lurzoruaren ondare publikoan integratzeko; horren xedea izanen dira, nagusiki, eraikinen birgaitze-jarduketak edo hiri-berroneratzeko edo berrikuntzako jarduketak.*” Arkitekto-aholkulariek egindako balorazioaren arabera, 397,80 euro ordaindu behar ditu obrak hasi baino lehen.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 8.270,86 eurokoa da eta ordaindu beharreko dirukopurua, 248,13 euro.
- María Urmeneta eta Patxi Chocarrok emandako txostenean aipatzen diren baldintzak kunplitu.
- Proiektuaren titularrak jarduera sailkatua hasi aurretik aurkeztuko du Udalean jarduera sailkatua martxan jarri izanaren erantzukizuneko aitortpena, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak abenduaren 23an emandako 448/2014 Foru Ainginduren 32. artikulua xedatzen duena.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hondakinen kudeatzaile baimendu bati entregatu obra hondakinak (23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituena).
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

Izaskun Altxu bilerara sartu da.

5. ITURENGO UR-BILTEGI BERRIA ETA BERE BIDEA.

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.2 c) eta 74. artikuluek xedatzen dutena kontutan hartuz, aho batez erabaki da:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. “Biltegi erregulatuak berria eta haren bidea Iturenen (Nafarroa)” izeneko proiektuan dauden lanak kontratatze baldintzen agiria onestea, komunitate-publizitate gabeko prozedura negoziatua jarraituz. Lanen aurrekontua 310.504,37 eurokoa da (gehi BEZa).

2. Proposamenak aurkezteko gonbidapenak bidaltzea 3 enpresa hauei: Construcciones Mariezcurrena SL, Sasoi Erikuntzak SL eta Apezetxea Anaiak SL.

6. UDAL-BULEGOEN GARBIKETA.

Udal-bulegoak eta herri-eremuak garbitzeko hartu zen langile bat Nafarroako Enplegu Zerbitzuko diru-laguntzarekin. Kontratuaren epea bukatu da eta diru-laguntza berria onetsi arte zer egin eztabaidatu da. Aho batez erabaki da deialdi berria egitea, langile bat kontratatzeko Udal-bulegoak garbitzeko diru-laguntza onetsi arte (4 edo 5 hilabete).

7. ZENBAIT ESKAERA.

1. Ibintza Kultur Taldeak eta Joaldunen Elkartek baimena eskatu dute. *Joaldunen Egunean* —irailaren 24a— Kapilla erabiltzeko. Baimena ematea erabaki da aho batez.

2. Aho batez erabaki da 150 euroko diru-laguntza ematea *Nafarroa Oinez 2016ri*.

3. B.N.M.k aurkeztu zuen idatzia irakurri du idazkariak. Bertan eskatzen du 2016URB1146 zenbakiko erreziboa berrikustea, ez dagoelako ados zenbatekoarekin. Erreziboa 290,40 eurokoa da eta udal arkitekto aholkulariek martxoaren 21ean emandako txostenaren kostuari dagokio. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da eskatutakoa ukatzea arrazoi hauengatik:

- N. andreak, sustatzailearen izenean, idatzia aurkeztu zuen, 2 poligonoko 85 eta 86 partzei dagokion Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa espedienteari buruzko azalpenak eskatuz. Udal arkitekto aholkulariek txostena eman zuten martxoaren 21ean eta txostena jakinarazi zitzaion egun bereko Osoko Bilkurako erabakiarekin batera.

- Txostenaren kostua 290,40 eurokoa izan zen eta hirigintzako tramitazioak eta beste tramitazio batzuk egiteko tasak arautzen dituen Ordenantzako 6. eta 7. artikuluek eta Eranskineko I. epigrafeak xedatzen dutena kontutan hartuz, N. andreari dagokio ordaintzea.

4. J.I.A.k Iturengo dolmenei buruzko txostena aurkeztu zuen, J.A. arkeologoak egina 1999an. Udalak jakin badaki gai garrantzitsua dela eta aintzat hartuko du dagokionean.

8. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbata:

- 2016ko uztailaren 11koa, I.P.k Iturengo Udalean jarritako 6.000,00 euroko abala baliogabetzeko baimena eman zuena.

- 2016ko uztailaren 13koa, jarduera lizentzia eman ziona M.S.G.ri, ibilgailuak eta erremintak gordetzeko nabea eraikitzeke Iturengo 2 poligonoko 512 partzelan.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- 2016ko abuztuaren 30ekoa, Mirukabi parajeko lotea ateratzeko Zabala Timber SLk jarritako behin-betiko fidantza itzultzea erabaki zuena.
- 2016ko irailaren 1ekoa, Totolaz parajeko lotea ateratzeko Pako Alzuri SLk aurkeztutako abalak baliogabetzeko baimena eman zuena.
- 2016ko irailaren 1ekoa, *Luisenea* etxeko terraza eta baratzan konponketa txikiak egiteko lizentzia eman ziona M.A.T.ri.
- 2016ko irailaren 1ekoa, J.A.M.ri baimena eman ziona, 2 poligonoko 298 partzelako itxitura egiteko eman zitzaion lizentziaren hasiera-epea luzatzeko.
- 2016ko irailaren 1ekoa, J.M.A.ri baimena eman ziona, *Matxatxipia* etxearen ondoan daukan txerritegiko teilatua konpontzeko eman zitzaion lizentziaren hasiera-epea luzatzeko.
- 2016ko irailaren 7koa, Iturengo U.E. 4ko borondatezko birzatiketa proiektuari hasierako onespina eman ziona.
- 2016ko irailaren 7koa, urbanizazio proiektuari hasierako onespina eman ziona, Iturengo U.E. 4 unitatea urbanizatu ahal izateko.
- 2016ko irailaren 7koa, kudeaketako hirigintza hitzarmenari hasierako onespina eman ziona. Hitzarmenaren helburua da, Iturengo U.E. 4 unitatearen eremuan laga beharreko hirigintza aprobetxamenduaren %10 eskudirutan konpentsatzea.

9. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Nafarroako Gobernura bidali den baso-aprobetxamenduko baimen eskaera —C.M.E.rena—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Antolamendu Lokalerako eta Toki Entitateei Laguntzeko Zerbitzuak *Medikuaren Etxeari* buruz eman zuen zuzenbide-txostena; —; “*Tren Txikito*”ri buruzko diploma; Lindutx Baztan SLk jarri zuen auzi-errekurtsioan erreklamatzeko dituen kalteei buruzko txosten teknikoa, I.A. arkitektoak egina.

2. NILSAk Latsaga aldera eraiki zuen pasagunea oinezkoentzat da eta ibilgailuak ez ibiltzeko zerbait jarri behar dela uste du Udalak. Aho batez erabaki da kendu daitezken mutiloiak (bolardoak) jartzea.

10. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 15:20a direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.